

2021  2026

LANEKO SEGURITASUN ETA
OSASUNERAKO EUSKAL
ESTRATEGIA



KUDEAKETA PLANA 2023

2023ko Kudeaketa plana



Barakaldo, 2023

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki daiteke:

<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca General del Gobierno Vasco:

<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

A catalogue record of this book is available in the catalogue of the Central Library of the Basque Government:

<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Izenburua: Plan de Gestión 2023 / 2023ko Kudeaketa Plana.

Argitaraldia: 1.a, 2023ko urria.

Ale-kopurua: 30 ale.

Egilea: OSALAN- Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales / Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.

© Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi. OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales / Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.

Argitaratzailea: OSALAN- Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales / Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.
Dinamita Bidea z.g.- 48903 Barakaldo (Bizkaia).

Internet: www.osalan.euskadi.eus

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Fotocomposición IPAR, S. Coop.
Zurbaran Kalea 2, 4- behe. 48007 Bilbao (Bizkaia)

Lege-gordailua: LG BI 1112-2023

AURKIBIDEA

Aurkezpena.....	7
1. ARDATZA: KULTURA. LAP, EUSKAL GIZARTEAREN EZAUGARRI KULTURALA.....	10
1. HE: Gizarteak kontzientzia handiagoa hartzea laneko segurtasunari eta osasunari buruz, gai hori hobeto ezagutzea eta laneko arriskuei aurrea hartzean arduratsuago jokatzeari.....	10
2. HE. Autonomoen kolektiboak kontzientzia handiagoa hartzea laneko arriskuen prebentzioari dagokionez.....	11
2. ARDATZA: PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SENDOA ETA KALITATEZKOA. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA (LAP), ERAKUNDEEN (ENPRESA PRIBATUAK ETA PUBLIKOAK, ADMINISTRAZIOAK) BIKAITASUNAREN EZAUGARRIA, ENPRESA-SARE JASANGARRIA, MODERNOA ETA LEHIAKORRA FINKATZEKO.....	12
4. HE. Enpresek eta erakundeek laneko arriskuen prebentziorako kalitatezko eredia dute.....	12
5. HE. Lanari lotutako istripu eta gaixotasunen ondoriozko osasun-kalteak gutxiago dira.....	14
3. ARDATZA: GOBERNANTZA: BOTERE PUBLIKOEN GOBERNANTZA AZPIMARRATU DUTE LANEKO SEGURTASUNEAN ETA OSASUNEAN.....	18
6. HE. Botere publikoen EAEko administrazioaren eskumenen barruan egiten dituzte legeak, gaur egungo araudia berrikusten dute, hobetu dadin sustatzen dute, hura betetzeko aholkuak ematen dituzte eta betetzen dela kontrolatzen dute.....	18
7. HE. LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA hobetzeko ekintzak sartu dira gobernuaren eta egoki diren beste administrazio publiko batzuen politika guztietan.....	19

8. HE. Laneko arriskuen prebentzioaren egungo ereduan txertatzea zaila duten lan-moduak dituzten kolektiboen (autonomoak, plataformak, etxean lan egiten dutenak) lan-baldintzak eta LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO sarbidea hobetzen dira.....	21
9. HE. Ezagutza sortzen da, laneko arriskuen prebentzioari lotutako prestakuntza, ikerketa eta berrikuntza bultzatuz generoaren ikuspegitik; horrela, aurrea hartuko zaie gizartean (zahartzea, lana antolatzeko beste aukera batzuk, globalizazioa), teknologian (digitalizazioa, automatizazioa) eta ingurumenean (klima-aldaketa) gertatzen diren aldaketei	22
10. HE. Informazio-sistema eta adierazle egokiak ezarri dira, datuen bilketa sistematikoa eta azterketa egiteko eta eragileei eta gizarteari horien berri emateko; horrela, osasunari lotutako prebentzioa eta babesa ezartzeko neurrien plangintza egin ahal izango da eta neurri horiek balioetsi ahal izango dira, betiere genero-ikuspegia eta beste gizarte-ezaugarri batzuk kontuan hartuz.....	24
12. HE. Gizarte-eragileekin elkarrizketa sendotu eta finkatu da, pertsonak oinarritzat hartzen dituen eta gizarte-ezaugarriak sartzen dituen laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketa-eredua lortze aldera	24

Aurkezpena



Lourdes Iscar Reina

Urtero bezala, OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak (Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailaren menpeko erakunde autonomoa) bere kudeaketa-planean jasotako ekintzen arabera planteatu ditu helburuak, hiru jarduera-ardatzen inguruan:

1. ardatza: kultura: Laneko Arriskuen Prebentzioa (LAP) euskal gizartearen ezaugarri kulturala;
2. ardatza: prebentzioaren kudeaketa sendoa eta kalitatezkoa;
3. ardatza: gobernantza.

Hain ohikoak eta ezinbestekoak diren zeregin “tradizionalez” gain, “2023ko Kudeaketa Plan” honetan jasotzen diren berrikuntza nagusiak honako hauek dira:

- OSALANen “Laneko Segurtasun eta Osasunaren Nazioarteko V. Biltzarra” ospatzea. Biltzarra, erakundearen sorreraren 30. urteurrenarekin bat eta Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Mundu Egunaren inguruan, Bilbon ospatuko da, Euskalduna Jaurregian, 2023ko apirilaren 24an eta 25ean, “*Erronkak onartuz, ahaleginak batuz*” lelopean.
- 2021-2026 aldiko Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Euskal Estrategia apurka-apurka ezartzeko bidean, gizarteari inkesta bat egingo diogu eta hura aztertu, laneko arriskuen prebentzioaren gaineko ezagutza-maila ezarri eta hobetzeko; prebentziorako kalitatezko eredu bat aztertu eta garatuko dugu enpresan; Laneko Arriskuen Prebentzioaren (LAP) araudia berrikusiko dugu, egokitzeko eta hobetzeko proposamenak egiteko, bereziki enpresa txikientzat, autonomoentzat eta egungo egoeran txertatzeko zailtasun handienak dituzten kolektiboentzat.
- Eta, gainera, geure buruari proposatu diogu, besteak beste, eraikuntzaren sektorean jardueren koordinazioa hobetzea; alerta-sistema batekin jarraitzea, estatistiken arabera halakoak behar dituzten eremuetara zuzendutako kanpainak egiteko;



ergonomia-taldea indartzea; arrisku psikosozialen mapa eguneratzea, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) enpresetan arrisku horien prebentzioaren egoera eza-gutzeko; udaletako teknikarien prestakuntzan laguntzea, amiantoaren errolda egi-teko, eta hura ezabatzen eta desagerrarazten laguntzea; emakumeen eta gizonen laneko istripuei eta gaixotasun profesionalei buruzko txosten bat egitea, 2021eko Lan Baldintzen Inkestako datu eguneratuekin eta beste datu-iturri batzuekin; eta langile autonomoei zuzendutako prestakuntzarako plataforma birtuala martxan jartzea.

Aipatu ditugun horiek aurrean dugun zeregin zorrotzaren zertzelada batzuk baino ez dira. Horretarako, Laneko Segurtasun eta Osasunaren Nazioarteko V. Biltzarraren leloak *–Erronkak onartuz, ahaleginak batuz–* dioen bezala, alde guztien konpromisoa eta partaidetza behar dira, hau da, enpresak, prebentzio-erakundeak, langileak, segurtasun eta osasuneko batzordeak, prebentzioko ordezkariak, enpresa- eta sindikatu-erakundeak eta administrazio publikoak inplikatu beharko dira.

Lourdes Iscar Reina

OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusia

OSALANen 2023ko Kudeaketa-Planerako proposatutako ekintzak



1. ARDATZA: KULTURA. LAP, EUSKAL GIZARTEAREN EZAUGARRI KULTURALA

1. HE. Gizarteak kontzientzia handiagoa hartzea laneko segurtasunari eta osasunari buruz, gai hori hobeto ezagutzea eta laneko arriskuei aurrea hartzean arduratsuago jokatzeko	
EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
1.1	<p>Laneko arriskuen prebentzioaren kultura sustatzea eragileen artean eta OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen baitako balioak gizartean proiektatzea, jarrera seguruak eta lan-inguru osasuntsuak sustatze aldera:</p> <ul style="list-style-type: none">• Laneko segurtasuna eta osasuna sustatuz, komunikabideen bitartez.• Laneko segurtasuna eta osasuna bultzatzeko publizitate-kanpainak garatuz.• OSALANek Interneten duen presentzia eta sare sozialen bidez herritarrekin duen interakzioa sustatuz.• “Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Mundu Egunaren” komunikazio-kanpaina, OSALANen “Laneko Segurtasunari eta Osasunari buruzko Nazioarteko V. Biltzarrari” zuzendua.
1.2	<p>OSALANen Laneko Segurtasunari eta Osasunari buruzko XIII. Ikastaroa antolatzea, EHUko Udako Unibertsitateak eskaintzen dituen ikastaroen barruan.</p>
1.3	<p>Laneko arriskuen prebentzioaren kultura sendotzea irakaskuntza-zikloetan.</p> <ul style="list-style-type: none">• Gaztepreben espazioari eustea.• ADI proiektua bultzatzea.• Lanbide-heziketako zentroek bisitak egitea OSALANera.
1.4	<p>Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko argitalpenak kudeatu, egin, editatu eta hedatzea, eta herritar guztiengana helaraztea (langileak, enpresak, prebentzio-zerbitzuak, gizarte-eragileak, prestakuntza-entitateak...).</p>
1.5	<p>Gizarteari galdetzea, laneko arriskuen prebentzioari buruz zer dakien ezartzeko eta hobetzeko, eta emaitzak aztertzea.</p>

1. ARDATZA: KULTURA. LAP, EUSKAL GIZARTEAREN EZAUGARRI KULTURALA

2. HE. Autonomoen kolektiboak kontzientzia handiagoa hartzea laneko arriskuen prebentzioari dagokionez	
EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
2.1	<p>Langile autonomoen artean laneko arriskuen prebentzioaren kultura areagotzea:</p> <ul style="list-style-type: none">• Autonomoen kolektiboa ordezkatzeko duen biztanleriari inkesta egitea eta hura aztertzea, laneko arriskuen prebentzioaren gainean duen ezagutzamaile ezarri eta hobetzeko.• Informazioa zabaltzeko ekintzak egitea (prebentzio-erloto gomendioak jasotzen dituen materiala, triptikoak, OSALANen webeko informazio-fitxak).• Ezagutza espezifikoko espazioa garatzea OSALANen webean.





2. ARDATZA: PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SENDOA ETA KALITATEZKOA. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA (LAP), ERAKUNDEEN (ENPRESA PRIBATUAK ETA PUBLIKOAK, ADMINISTRAZIOAK) BIKAINASUNAREN EZAUGARRIA, ENPRESA-SARE JASANGARRIA, MODERNOA ETA LEHIAKORRA FINKATZEKO

4. HE. Enpresek eta erakundeek laneko arriskuen prebentziorako kalitatezko eredua dute	
EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
4.1	Laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspegia txertatzeari buruzko dibulgazioko ekintzak eta materiala garatzea.
4.2	Eraikuntzaren sektorean jardueren koordinazioa hobetzea. Inkestren ondorioak, hobekuntza-proposamenak eta emaitzak obretako segurtasun eta osasunaren koordinatzaileei helaraztea.
4.3	Prebentzio-zerbitzuen osasun-jardueren kalitatea sustatzeko kanpaina: <ul style="list-style-type: none">• Plangintza eta zaintza kolektiborako gomendioak jasotzen dituen gida bat argitaratzea.• Zaintza indibidualeko gomendioak. Bereziki sentikorra den langilearen gaitasunaren kontzeptua zehaztea eta lanpostua egokitzea.

2. ARDATZA: PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SENDOA ETA KALITATEZKOA. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA (LAP), ERAKUNDEEN (ENPRESA PRIBATUAK ETA PUBLIKOAK, ADMINISTRAZIOAK) BIKAIN TASUNAREN EZAUGARRIA, ENPRESA-SARE JASANGARRIA, MODERNOA ETA LEHIAKORRA FINKATZEKO

4. HE. Enpresek eta erakundeek laneko arriskuen prebentziorako kalitatezko ereduak dute	
EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
4.4	<p>Laneko arriskuen prebentzioa bultzatzea lehen sektorean.</p> <ul style="list-style-type: none"> • “2019-2025 Euskadiko Elikaduraren eta Egurraren Balio Katearen Laneko Segurtasun eta Osasunerako Estrategia Sektoriala. E-PREBEN-EuskadiPreben” garatzea. • Prebentzioaren kultura sustatzea, elikaduraren eta egurraren balio-katean arriskuak murrizteko. • Basogintzako jardueran arriskuak murriztea. <ul style="list-style-type: none"> - Alerten ondorioz sortutako eta 2022an zehar egindako kanpainaren ondorioak. - Istripuak jasan dituzten enpresetara bisitak egiteko kanpainak, prebentzioaren kudeaketa aztertu eta istripuaren ondoren hartu diren neurrien jarraipena egiteko. - Maizen gertatzen diren istripuei buruzko fitxak ezartzea eta hedatzea. - “Zeregin errematatzaileetako lan-prozesu seguruen gidaren” eguneraketa argitaratzea, EuskadiPrebenen esparruan. - Sektoreari zuzendutako jardunaldietan informazioa hedatzea, EuskadiPrebenen esparruan. • Hegazti-gripearen esposizioaren ziozko arriskuen prebentziora buruzko materiala eguneratzea.
4.5	<p>Enpresan prebentziorako kalitatezko eredu bat aztertu eta garatzea. Beste tamaina batzuk dituzten enpresetan gaur egun erabiltzen den ereduak aztertzeko: AMIA eta proposamenak.</p>
4.6	<p>OSALANen Higiene-laborategiaren bidez zerbitzuak ematea: Neurketa analitikoak egitea.</p>



5. HE. Lanari lotutako istripu eta gaixotasunen ondoriozko osasun-kalteak gutxiago dira	
EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
5.1	Gaixotasun profesionalaren susmoaren informazio -sistema, EAEko prebentzio-zerbitzuetako lehen mailako arreta eta arreta espezializatua emateko zerbitzuek eta osasun-zerbitzuek lanean gertatu ahal izan diren gaixotasunen berri eman dezaten.
5.2	OSALANen eskumen-eremuko laneko istripuak ikertzea. <ul style="list-style-type: none">• Laneko istripu hilgarri guztiak ikertzea (ez-traumatikoak barne, horiek sor ditzaketen arrisku-faktoreak kontuan hartuta), bai eta istripu oso larriak, larriak eta biktima anizkunak.• Laneko istripu arin guztiak ikertzea, baldin eta prebentzioaren ikuspegitik interesgarritzat jotzen badira.<ul style="list-style-type: none">- Istripu anizkunak.- Istripuen balorazioa, alerta-planaren barruan.- Pronostiko ilogikoa izan dezaketen istripuak.• Istripu ez-traumatikoak ikertzea, arriku psikosozialeko faktoreekin lotuta.
5.3	Agerraldien zaintza epidemiologikoa , alertak eta kasu-multzoak (klusterrak). <ul style="list-style-type: none">• COVID-19aren kasuen eta kontaktuen kudeaketa eremu zaugarrietan.
5.4	Esposizioaren eta ondorioen arteko harremanaren aholkularitzari buruzko txostenak egitea.
5.5	Enpresei, langileei, ordezkariari eta prebentzio-erakundeei aholku ematea eta Osalaren eskumenen inguruan laguntza teknikoa behar dutenean erantzutea.
5.6	Laneko arriskuen prebentzioa gainbegiratzea enpresen lantokietan; zehazki, lantokia ireki duten horietan .

5. HE. Lanari lotutako istripu eta gaixotasunen ondoriozko osasun-kalteak gutxiago dira	
EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
5.7	<p>Lana utzi osteko osasunaren zaintzarako jarduerak prestatu eta kudeatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • “Amiantoaren esposizio pean egon ahal izan diren langileen fitxategia, lana utzi osteko osasunaren zaintzarako” kudeatu eta eguneratzea, beren lan-bizitzan zehar amiantoaren esposizio pean egon ahal izan diren langileei osasunaren zaintza errazteko. • Silizearen esposizio pean dauden langileen lana utzi osteko osasunaren zaintzarako prozedura. Osasun Publikoaren Batzorde Nazionalaren parte den laneko osasunaren batzordean parte hartzea. Batzorde horrek gai hau lantzen du, bi eremutan: 1.- Esposizio pean dagoen biztanleria diseinatzea, 2.- Zaindu beharreko efektua erabakitzea.
5.8	<p>Alerta-sistema, lesio larrienak eta maizen gertatzen direnak eragiten dituzten laneko istripuen (LI) eta gaixotasun profesionalen (GP) ondoriozko osasun-kalteak ikertzeko eta horietan esku hartzeko.</p> <p>Alerta-sistema honen ziozko 2022ko kanpainetako emaitzen azterketa eta 2023ko kanpainen proposamena:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erorketak altueratik – Eraikuntza. • Harrapaketak – Industria. • Makinen iraulketa – Lehen sektorea. • Sorbaldako lesioak – Ergonomia eta Laneko Osasun Unitatea (LOU).
5.9	<p>Ergonomia-taldea indartzea eta egin beharreko proiektuak aztertzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Telanelako edo bulegoko lanetako ergonomiaren gaineko jardunbide onak hedatzea.
5.10	<p>Lanak eragindako minbizia prebenitzea eta zaintzea, bereziki, mesoteliomarena, sinu parnasalen minbiziarena eta angiosarkomarena. Txanda-sistemaren eta minbiziaren egoera aztertzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Minbiziari buruzko azterlanak eta txankako lanak aztertzea eta ondorioak ateratzea. • Osasun Sailarekin lankidetzan aritzea.



5. HE. Lanari lotutako istripu eta gaixotasunen ondoriozko osasun-kalteak gutxiago dira	
EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
5.11	<p>Arrisku psikosozialen gaineko laguntza eta aholkularitza:</p> <ul style="list-style-type: none">• Laneko eta Justiziako Agintaritzen eskariei/errekerimenduei erantzutea.• Honako hau zabaldu da “Gida: Nola kudeatu arrisku psikosozialak zure enpresan”. Metodologia kualitatiboak azpimarratzea.• “Arrisku psikosozialen mapa” eguneratzea. Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) enpresetako arrisku psikosozialen prebentzioaren egoera ezagutzea.• Telelaneko arrisku psikosozialen gaineko kanpainaren ondorioak aurkeztu eta hedatzea.
5.12	<p>Osasuna sustatzeko programak egin eta garatzea: adina eta lana, osasun mentala eta lan-baldintzak, mendekotasunen prebentzioa enpresan.</p> <ul style="list-style-type: none">• Enpresa osasungarria bultzatzeko lanean aurrera egitea: hobekuntzak bultzatzea, erakundearen aldaketak egiteko teorietan eta metodoetan oinarritzen diren prozesuak erabiliz.
5.13	<p>Higienea. Azalaren bidez agente kimikoen esposizioa pean egoteari buruzko azterlanaren ziozko emaitzak eta neurri-proposamenak aztertzea.</p>
5.14	<p>Osasuna zaintzeko protokoloak egin, berrikusi eta hedatzea.</p> <ul style="list-style-type: none">• “Osasuna zaintzeko gida produktu kimikoekiko esposizioan dauden langileentzat”.
5.15	<p>Lan-munduko bide-segurtasunaren kultura sustatzea, bideko laneko arriskuen murrizketa errazten duten ekintza berriak garatzeko.</p> <ul style="list-style-type: none">• Innovabide programako Zuzendaritza Batzordean eta Batzorde Teknikoan parte hartzea, EAEko Bide Segurtasuneko eta Mugikortasun Seguru eta Jasangarriko Plan Estrategikoaren (2021-2025) esparruan.

5. HE. Lanari lotutako istripu eta gaixotasunen ondoriozko osasun-kalteak gutxiago dira	
EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
5.16	<p>Udallerrietako udalei aholkularitza ematea amiantoa duten materialak kudeatu eta tratatzeko moduari buruz.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Udallerrietan egiten diren obretan amiantoa ote dagoen antzemateko tresnak egin eta udalen esku jartzea. • Obretan amiantoa ote dagoen antzemateko udal-teknikariei zuzendutako ikastaro aditu bat ematea eta udalen esku jartzea. • Udalekin lankidetzan aritzea, Geoeuskadi aplikazioan amiantoaren geolokalizazioa ezartzeko, eta horri lotutako aholkuak ematea. • Agintaritzekin batera (lanekoa, ingurumenekoa, osasunekoa eta udalekoa) lankidetzan aritzea, ekonomia zirkular baterako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 7/2022 Legearen hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betetzen dela bermatzeko. • Amiantoaren errolda.
5.17	<p>Generoak lan-baldintzetan eta lan-arrazoien ondoriozko osasunaren kaltetzean duen eraginari buruzko azterlanak.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ordezkaritza baxuena duen sexua jarduera batean sartzeak jarduera horri lotutakoez bestelakoak diren patologien agerpenean edo adierazpen desberdinetan duen eragina aztertzea. • Biztanleria migrantearen lan-baldintzen, laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen egoera genero-ikuspegiarekin aztertzea. • Emakumeen eta gizonen laneko istripuei eta gaixotasun profesionali buruzko txostena egitea, lan-baldintzen 2021eko inkestako datu eguneratuekin eta beste datu-iturri batzuekin.



3. ARDATZA: GOBERNANTZA: BOTERE PUBLIKOEN GOBERNANTZA AZPIMARRATU DUTE LANEKO SEGURTASUNEAN ETA OSASUNEAN

6. HE. Botere publikoek EAEko administrazioaren eskumenen barruan egiten dituzte legeak, gaur egungo araudia berrikusten dute, hobetu dadin sustatzen dute, hura betetzeko aholkuak ematen dituzte eta betetzen dela kontrolatzen dute	
EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
6.1	Euskal Autonomia Erkidegoko prebentzio-zerbitzuen osasun-jardueren eta osasun-zerbitzuen fitxategia garatu eta ezartzea, bai eta auditoretza-erakunde espezializatuena ere.
6.2	Laneko, osasuneko eta justiziako agintaritzen laguntza teknikoko eskariak eta laneko ikuskaritzarenak artatzea.
6.3	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailarekin lankidetzan aritzea, fabrikatzaileek, inportatzaileek eta merkaturatzaileek makinen segurtasunari buruzko 2006/42/CE zuzentaraua betetzen duten kontrolatzeko, horretarako dagoen protokoloa garatuz. <ul style="list-style-type: none">• OSALANek Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzari (lehen, Administrazio eta Segurtasun Industrialeko Zuzendaritza) abisuak egiteko zirkuitua: indarrean dagoen hitzarmenarekin bat eginez.• Arrisku-egoera bat eragiteko adinako hutsuneak ez dituzten makinen berri ematen da.
6.4	Amiantoa duten materialak erretiratzeko lan-planen kontrola egitea, Lan Agintaritzaren eskariz. Lan Agintaritzaren eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren artean koordinazioa ezartzea. <ul style="list-style-type: none">• Agintaritzekin batera (lanekoa, ingurumenekoa, osasunekoa eta udalekoa) lankidetzan aritzea, hondakinak behar bezala ezabatzeko, ekonomia zirkular baterako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 7/2022 Legearen hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

3. ARDATZA: GOBERNANTZA: BOTERE PUBLIKOEN GOBERNANTZA AZPIMARRATU DUTE
LANEKO SEGURTASUNEAN ETA OSASUNEAN

6. HE. Botere publikoek EAEko administrazioaren eskumenen barruan egiten dituzte legeak, gaur egungo araudia berrikusten dute, hobetu dadin sustatzen dute, hura betetzeko aholkuak ematen dituzte eta betetzen dela kontrolatzen dute

EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
6.5	Kanpoko prebentzio-zerbitzuek ziurtapen-baldintzak betetzen dituztela kontrolatzea eta Prebentzio Zerbitzu Mankomunatu eta laneko arriskuen prebentziorako auditoria egin nahi duten entitateak eratzeari, Lan Agintaritzaren eskariz.
6.6	Osasun-baimenen eta prebentzio-zerbitzuen kontrolaren arloko eskumenak gauzatzea, baita arau-haustea proposatzeko eskumena ere.
6.7	Arreta egitea Osalaren jasotako salaketa hauei: Laneko Osasuneko Unitatearen eskumen-esparruari buruzkoak, unitate hori baita prebentzio-zerbitzuetako osasun-agintaritza.
6.8	Laneko arriskuen prebentzioaren gaineko araudia berrikustea , baita hura egokitu eta hobetzeko proposamenak ere, batez ere enpresa txikietan, autonomoetan eta egungo egoeran txertatzeko zailtasun gehien duten kolektiboetan.

7. HE. LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA hobetzeko ekintzak sartu dira gobernuaren eta egoki diren beste administrazio publiko batzuen politika guztietan

EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
7.1	Organo eskudunekin lankidetzako jarduerak garatzea, xede izanik herri-lanetan eta azpiegitura handietako zereginetan laneko arriskuen prebentzioa txerta dadin bultzatzea.
7.2	2021-2026 Laneko Segurtasun eta Osasunaren Euskal Estrategia hedatzea. <ul style="list-style-type: none"> Estrategiaren 2022-2023 Ekintza Planean planteatutako ekintzen jarraipena.



7. HE. LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA hobetzeko ekintzak sartu dira gobernuaren eta egoki diren beste administrazio publiko batzuen politika guztietan	
EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
7.3	EMAKUNDE ekin sinatutako hitzarmena garatzea, baterako ekintzak egiteko, laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspegia txertatze aldera. <ul style="list-style-type: none">• Sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren aurkako online prestakuntza-programa.• Berdintasun Planetan laneko arriskuen prebentzioa zelan jorratzen den aztertzea eta hura hobetzeko jardunbideak proposatzea.• Prebentzioa kudeatzeko orduan jardunbide onak identifikatzea, genero-ikuspegiarekin, Euskalitekin lankidetzan.
7.4	Jarraipena eta ebaluazioa egitea OSALANentzat interesgarriak izan daitezkeen edo OSALANen ezagutza jasotzeko interesa izan dezaketen lantaldee i eta erakunde en arteko batzorde e i buruz eta horietan parte hartzea.
7.5	Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin lankidetzan jardutea, Desgaitasunak Baloratzeko Talde en bileretan parte hartuz.
7.6	Amiantoaren laneko erabileraren ziozko patologiak dituzten langileekin lotuta baterako jarduerak egiteko hitzarmena garatu eta jarraipena egitea. Hitzarmen hori Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak, EAEko Administrazio Orokorrak, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak eta OSALANek sinatu dute.
7.7	Osalanen 2023ko Kudeaketa Plana egin eta hedatzea, bai eta haren jarraipena eta ebaluazioa egitea ere, eta emaitzak kasuan kasuko jardueren memorian argitaratzea.
7.8	OSALANeko artxiboak EAEko administrazio orokor eta instituzionaleko artxiboko sistemara egokitzea.
7.9	Aurrekontuaren betearazpen -mailaren jarraipena egitea.
7.10	OSALANen zerbitzuak eta prozesuak hobetzea. <ul style="list-style-type: none">• OSALANen zerbitzuen katalogoa berritzea.• Kontsulten izapide elektronikoak eta aholkularitza teknikoak hobetzea.
7.11	OSALANen Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Plana (2022-2024) bete dadila sustatzea eta haren jarraipena egitea.
7.12	OSALANen euskararen erabilera normalizatzeko plana sustatzea eta haren jarraipena egitea.

3. ARDATZA: GOBERNANTZA: BOTERE PUBLIKOEN GOBERNANTZA AZPIMARRATU DUTE
LANEKO SEGURTASUNEAN ETA OSASUNEAN

7. HE. LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA hobetzeko ekintzak sartu dira gobernuaren eta egoki diren beste administrazio publiko batzuen politika guztietan	
EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
7.13	Arau, kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenen jarraipen juridikoa egitea.
7.14	<p>Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzarekin komunikatzeko bide bat edukitzeko lantaldeak martxan jartzea, lankidetzaren behar duten ekintza guztiak (batez ere 5. HE eta 10. HE) koordinatuta gauzatu daitezkeen:</p> <p>Talde koordinatzailearen aldizko bilerak eta prestakuntza, zuzendaritzetatik:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Araua garatzen lankidetzaren aritzeko taldea: Euskadiko osasun-plana, prebentzio-zerbitzuen osasun-jardueren dekretua. • Gaixotasun kutsagarrien, klusterren eta txertoen arloko lankidetzaren taldea. • Gaixotasun profesionalen buruzko susmoen jarraipen-batzordea. • Informazio-sistemen koordinaziorako lankidetzaren taldea. • Koordinatuta lan egitea lanaren eraginezko minbizia aztertzeko. • Osasuna sustatzeko eta adikzioak prebenitzeko jarduerak koordinatzeko taldea. • Jarduera bateratuak garatzean ager daitezkeen bestelako ekintzak. • Prebentzio-zerbitzuen esku-hartzea duten jarduerak aztertzeko taldea, horien partaidetzarekin. <p>OSALANen Kontseilu Nagusiari lortzen diren akordioaren eta taldeen jardura eta aurrerapenen berri emango zaie.</p>

8. HE. Laneko arriskuen prebentzioaren egungo ereduaren txertatzea zaila duten lan-moduak dituzten kolektiboaren (autonomoak, plataformak, etxean lan egiten dutenak) lan-baldintzak eta LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO sarbidea hobetzen dira	
EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
8.1	<p>Prebentzioa sustatzea autonomoen artean:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Langile autonomoen beharrezkoak aztertzea, kolektibo honetan esanguratsuak diren erakundeekin. • Online prestakuntza. Plataforma birtuala abian jartzea. • Prestakuntzarako dirulaguntzak. • Legeria hobetzeko azterketak. • Informazio-hitzaldiak.



9. HE. Ezagutza sortzen da, laneko arriskuen prebentzioari lotutako prestakuntza, ikerketa eta berrikuntza bultzatuz generoaren ikuspegitik; horrela, aurrea hartuko zaie gizartean (zahartzea, lana antolatzeke beste aukera batzuk, globalizazioa), teknologian (digitalizazioa, automatizazioa) eta ingurumenean (klima-aldaketa) gertatzen diren aldaketei

EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
9.1	Laneko arriskuen prebentzioaren gaineko ezagutza sustatzea, prestakuntza eta dibulgazioko ekitaldiak eginez (ikastaroak, tailerrak, jardunaldiak eta abar) laneko segurtasunaren eta osasunaren gaineko alderdi interesgarriei buruz eta laneko segurtasunaren eta osasunaren gaineko mezuak hedatuz enpresari, agente sozial, elkarte, erakunde espezializatu eta abarrekin egiten diren ekitaldi eta topaketetan .
9.2	Sindikatuarekin batera, prebentzioko ordezkarien oinarrizko prestakuntza kudeatzea.
9.3	Prebentzio-zerbitzuetako teknikariei zuzendutako prestakuntza-plana sustatzea.
9.4	Prebentzio-zerbitzuetako osasun-langileei zuzendutako prestakuntza eman eta sustatzea, diseinatutako planaren arabera Lan Medikuntzaren Euskal Elkartearekin eta Bilboko Medikuntza Zientzien Akademiarekin elkarlanean.
9.5	OSAKIDETZAKO osasun-langileentzako laneko osasuneko prestakuntza erraztu eta sustatzea.
9.6	Euskadiko Lan Medikuntzako Irakaskuntza Unitateko barneko mediku egoiliarren/barneko erizain egoiliarren prestakuntzan lankidetzan aritzea, OSALANen txandakatzearen bidez (OSAKIDETZAKO Euskadiko Lan Medikuntzako Irakaskuntza Unitatearekin adostutako hitzarmena).
9.7	EHUrekin lankidetzan aritzea erizaintzako gradu ko ikasleei prestakuntza emateko.
9.8	Unibertsitatearekin lankidetzan aritzea, ikasleei prestakuntza ematen, EHUko laneko segurtasun eta osasunaren masterrean .
9.9	OSALANen praktikak egiteko aukera ematea EHUko Emakumeen eta gizonen berdintasuneko masterreko ikasleei.
9.10	Lanbide-heziketari lotuta (lanbide-arriskuak prebenitzeko teknikariak) prestakuntza praktikoa emateko lankidetzak-bideak ezartzea.

3. ARDATZA: GOBERNANTZA: BOTERE PUBLIKOEN GOBERNANTZA AZPIMARRATU DUTE
LANEKO SEGURTASUNEAN ETA OSASUNEAN

9. HE. Ezagutza sortzen da, laneko arriskuen prebentzioari lotutako prestakuntza, ikerketa eta berrikuntza bultzatuz generoaren ikuspegitik; horrela, aurrea hartuko zaie gizartean (zahartzea, lana antolatzeke beste aukera batzuk, globalizazioa), teknologian (digitalizazioa, automatizazioa) eta ingurumenean (klima-aldaketa) gertatzen diren aldaketei	
EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
9.11	Arrisku psikosozialekin lotutako prestakuntza/informazioa emateko materiala eta ekintzak garatzea: <ul style="list-style-type: none"> • PSIKOPREBEN web-orria indarrean mantentzea, informazio eta prestakuntzako materiala eta edukiak garatuz. • Laneko Psikosoziologiari buruzko XIII. Jardunaldiak antolatzea. • Beste ekitaldi/jardunaldi batzuetan parte hartzea eta horiekin lankidetzan aritzea.
9.12	Barneko prestakuntza-planeko prestakuntza-ekintzak martxan jarri eta jarraipena egitea. Barne-komunikazioa sustatzea.
9.13	Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko IV. Nazioarteko Biltzarra - Osalanen 30. urteurrena: "Erronkak onartuz, ahaleginak batuz".
9.14	OSALANen 2023ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (DPE) garatzea.
9.15	Europako SAF€RA taldeko kide moduan laguntzea.
9.16	Prebentzioaren gaineko ikerketa-proiektuak egin daitezela sustatzea.
9.17	Industria 4.0ren arloko laneko arriskuak prebenitzea. Lan-modu berrien ondoriozko arriskuen esposizioaren zioz osasunerako sortu diren kalteak identifikatzea.
9.18	Trenbide-azpiegitura handiak egitean laneko arriskuen prebentzioari buruzko gida teknikoaren II. atala prestatzea.
9.19	Kantauri itsasoko ertzeko autonomia-erkidegoekin batera prebentzio-baliabidearen eskuliburua berrikustea.



10. HE. Informazio-sistema eta adierazle egokiak ezarri dira, datuen bilketa sistematikoa eta azterketa egiteko eta eragileei eta gizarteari horien berri emateko; horrela, osasunari lotutako prebentzioa eta babesa ezartzeko neurrien plangintza egin ahal izango da eta neurri horiek balioetsi ahal izango dira, betiere genero-ikuspegia eta beste gizarte-ezaugarri batzuk kontuan hartuz

EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
10.1	Prebentzio-zerbitzuen gutxieneko datu-multzoan (GDM) oinarrituta, lan-osasunari buruzko informazio-sistema betetzean prebentzio-zerbitzuen partaidetza sustatzea. Esposizioaren mapa eta langileen kalteen mapa lortzeko asmoz.
10.2	Laneko historia klinikoa homogeneizatzeko datuak berrikustea.
10.3	EAEko ezbehar-kopuruari eta gaixotasun profesionaleri buruzko urteroko txostenak prestatu eta hedatzea.
10.4	Sistema-plana osatzen duten aplikazioak garatzea. <ul style="list-style-type: none">• Laneko istripuen espedienteak kudeatzeko eta elektronikoki izapidetzeko aplikazio informatikoak hobetzea.

12. HE. Gizarte-eragileekin elkarrizketa sendotu eta finkatu da, pertsonak oinarritzat hartzen dituen eta gizarte-ezaugarriak sartzen dituen laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketa-eredua lortze aldera

EKINTZA KODEA	EKINTZAREN IZENA
12.1	Gizarte-eragileekin batera, OSALANen Kudeaketa Planaren jarraipena egitea horretarako sortutako Kontseilu Nagusiaren batzorde espezifikoa bileretan, eta haren ekarpenak jasotzea.
12.2	Kontseilu Nagusiaren ondorioz sortu den prestakuntza zehatza emateko batzordearen bilerak egitea gizarte-eragileekin, ezarritako maiztasunarekin eta ekarpenak eginez.



Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del



ZERBITZU ZENTRALAK

Dinamita Bidea, z.g. (Basatxu Mendia)
48903 Barakaldo (Bizkaia)
Tel. +34 944 032 190

ARABAKO LURRALDE ZENTROA

Pintor Clemente Arraiz, 7
01008 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel. +34 944 032 190

BIZKAIKO LURRALDE ZENTROA

Dinamita Bidea, z.g. (Basatxu Mendia)
48903 Barakaldo (Bizkaia)
Tel. +34 944 032 190

GIPUZKOAKO LURRALDE ZENTROA

Maldatxo Bidea, z.g.
20012 Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa)
Tel. +34 944 032 190

www.osalan.euskadi.eus